



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

65 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Bruselak Erriberako eskualdea “eskualde txuri” izendatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Osasungintzaren defizita kitatzeko formula gisa Gizarte Segurantzako botiken hein bat ordaintzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- “Ingurugiro Heziketa eta bestelako jarduerak” izenekotik dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate, elkarte edo pertsoneri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Abenduaren 14ko 289/1988 Foru Dekretuak ezarri dituen zaharberritze bulegoen ardura duten profesionalen zerrendari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- “Industri isurketak minimizatu eta tratatzeko eta ingurugiro auditoretzetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren kargura aurkeztu diren proiektuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Fitero eta Cintruénigotik hurbil ekipo elektrikoak birgaitzeko lantegi bat jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Zangoza aldean, Aragoi eta Onsella ibaietako ibilguak garbitu eta egokitzeko egiten ari diren lanei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Ur hornidurako lanak direla eta, Irati ibaiaren Ledea eta Zangoza artean pasatzen den tartean ibilguak duen egoerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- “Naturguneak babesteko itunak” izeneko aurrekontu-sailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Masa Amankomunari esleitutako ordezkatzeko-finkak Pitillasko Udalari lagatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko apirilean egindako bilerak (13. or.).
- 1998ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (15. or.).

F saila:
GALDERAK

Bruselak Erriberako eskualdea “eskualde txuri” izendatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Bruselak Erriberako eskualdea “eskualde txuri” izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierda alderdiko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Bruselak Erriberako eskualdea “eskualde txuri” izendatzeari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuaren laguntzen mapa aldatu ondoren, ahaleginak egin ditugu “laguntzarik gabeko eskualdeak” esaten direnen egoera leuntzeko; Europako Batasuneko batzordeak baimena eman ondoren, joan den azaroaren 3an, Foru Dekretu bat eman dugu, “laguntzarik gabeko eskualdeak” esaten direnetan inbertsioen ehuneko 15erainoko dirulaguntzak emateko enpresa txikiei, eta ehuneko 7,5erainoko dirulaguntzak emateko gainerako enpresa txiki eta ertainei.

Halaber, neurri hori muturreraino eraman nahi da eskualde horietako proiektuei ehuneko handienak emanez. Neurri horrekin batera, industri lurzo-

ruen azpiegiturak eta energi azpiegiturak hobetu eta sustapen-jarduerak sustatu nahi dira.

Beste aldetik, aurrekoari jarraipena emateko, enpresa guztiei “de minimis” esaten diren laguntzak ematen ahal izanen zaizkie. Dirulaguntza horiek enpresa bakoitzeko 100.000 ecus hiru urte-tan ere egin dezakete (gutxi gorabehera 16 milioi pezeta). Praktikan neurri horrek bidea ematen du, muga horien barranean, inbertsioa eta enplegua laguntzeko, korrituak eta leasing-ak zati batean ordaintzeko, eta kalitatea, diseinua, lehiakortasuna garapena eta abar bultzatzeko.

2. eta 3. Bi atal horietan egindako galderei erantzuteko, hurrengo hizketaldietan emandako erantzunetara jo daiteke.

1994ko otsailaren 24ko Osoko Bilkura. Hartan, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria zen Juan Cruz Alli Aranguren jaunak “Herri Batasuna” Parlamentari Taldeak 2 eta 5b helburuko eskualdeak mugatzeko Europako Ekonomi Elkarteko erakunde eskudunek onetsitako irizpideei buruz eginiko jabeldurari erantzun zion (Nafarroako Parlamentuko 55 zk.ko Bilkura Egunkarian argitara emana).

1994ko martxoaren 25eko Foru Araubide Batzordearen bilkura. Hartara, Bozeramaileen Batzarrak eskatuta, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria agertu zen Europako Batasunaren arautegian proposaturiko zonifikazioaren arabera Nafarroako udalen atxikipena aldatzeari buruzko argibideak emateko.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Osasungintzaren defizita kitatzeko formula gisa Gizarte Segurantzako botiken hein bat ordaintzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak osasungintzaren defizita kitatzeko formula gisa Gizarte Segurantzako botiken hein bat ordaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du osasungintzaren defizita kitatzeko formula gisa Gizarte Segurantzako botiken hein bat ordaintzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernu kontsulta hori jaso ote duen, hain zuzen ere defizita azaldutako moduan kitatzeari buruzkoa.

Nafarroako Gobernuak ez du Nazioko Gobernuaren kontsultarik jaso "jakiteko zein iritzi duten komunitate horiek gaisoek Gizarte Segurantzako botiken hein bat ordaintzeari buruz eta orain arte dohako izandako botiken (pentsionistak) hein bat ordaintzeari buruz", galdetzaileak adierazten duen bezala.

Ez dugu inongo informazio-bidetatik jakin hori izan denik inoiz ere Nazioko Gobernuaren asmoa.

2. Aurreko erantzuna baiezkota bada, zein izan den Nafarroako Gobernuak horren inguruan eman duen erantzuna.

Horren erantzuna aurreko puntuan eman dut.

3. Ados al dago Nafarroako Gobernuak aipatu defizita hein batean kitatzearekin pentsionistek botikak hein batean ordainduta, Espainiako Gobernuak adierazten duen bezala?

Ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñea, 1997ko abenduaren 9a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

“Ingurugiro Heziketa eta bestelako jarduerak” izenekotik dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate, elkarte edo pertsonen buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Ingurugiro Heziketa eta bestelako jarduerak” izenekotik dirulaguntzak jasotzen dituzten entitate, elkarte edo pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den Martín Landa Marco Nueva Izquierda alderdiko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ingurugiro-heziketako programei eta ingurugiroarekin zerikusia duten bestelako jardueren emandako dirulaguntzei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipatu kontusailaren kargura, 11090-7 lerro-zenbakia, dirulaguntzen onuradun diren entitate, elkarte edo pertsonen zerranda, eta emanda-

ko diru-zenbatekoa, bai eta kasu bakoitzean burutu nahi den jarduera ere.

Entitate eta jardueren zerrenda eranskin gisa eskaintzen dugu, eta horrekin batera jarduera horiek onesten dituzten foru aginduak eta ebazpenak doaz. Orain arte emandako zenbatekoa 14.176.675 pezetakoa da, 15.000.000 pezetako aurrekontu-kontusail batetik.

Gerakin horrekin, Zudaireko Kontzejuarekin eta Arantzaduria Elkartearekin Hitzarmen bat egitea aztertzen ari da, zenbatekoa 823.325 pezetakoa izango duena.

2.- Baldintzak bete arren, aipatutako kontusailaren baliabide falta dela-eta, dirurik jaso ez duten

elkarte, ikastetxe edo pertsonen zerrenda, halakorik balego.

Ez dago ezerein entitateren eskakizunik baliabide-faltan oinarrituz jaramonik egin gabe utzi denik.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Oharra: Aipatu eranskina Foru Parlamentarien esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako Bulegoan.)

Abenduaren 14ko 289/1988 Foru Dekretuak ezarri dituen zaharberritze bulegoen ardura duten profesionalen zerrendari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak abenduaren 14ko 289/1988 Foru Dekretuak ezarri dituen zaharberritze bulegoen ardura duten profesionalen zerrendari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den Martín Landa Marco Nueva Izquierda alderdiko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zaharberritze-bulegoen ardura duten profesionalen zerrendari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Abenduaren 14ko 289/1988 Foru Dekretuak ezarritako eskualdeetako bulegoen buru darduen langileen zerrenda.

2.- Une honetan haien jarduna arautzeko langile horiek indarrean duten kontratuaren mota: funtzionarioena, administrazio-kontratua edo lan-

kontratua; jasotzen dituzten soldatak eta gehigarriak, eta aipatu Dekretuan ezarritako bulegoetara lanera sartu ziren eguna.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi didanez, ORVE-etako langileen lan-harremana, kasu bakoitzean, horiei kontratua egin dien Udal, Udal Talde edo Mankomunitatearekin egoten da.

ORVEetako arduradunei dagokienean, Gobernuak hasierako soldata, bateraezintasun-osagarria eta, hala bada, antzinatasuna eta Gizarte Segurantzaren laguntza dituzte.

Jarraian, ORVE bakoitzaren ardura duten profesionalen buruzko informazio xehekatuagoa ematen da:

ORVE Iruña

Langileak funtzionarioak direnez gero, administrazio-unitatearen ardura Udalak izendatzen duen pertsonak dauka.

Nafarroako Gobernuak emaniko dirulaguntzen ondorioetarako, koalifikaziorik handieneko enplegatu gisa Enrique Maya Miranda jauna ageri da, arkitektoa; kontratu-mota: funtzionario-izaerakoa; inkorporazioa: 1989ko martxoa

Iruñerriko ORVE

Arduraduna: Federico Rosas Vilar jauna, arkitektoa. Kontratua: administrazio-izaerakoa. Inkorporazio-eguna: 1990eko urria.

Tafalla aldeko ORVE

Arduraduna: Tomás Urmeneta Fernández jauna, arkitektoa. Kontratua: zerbitzu-errentamendua. Inkorporazio-eguna: 1990eko martxoa.

Erriberako ORVE

Arduraduna: María Belén Esparza Estaún andrea, arkitektoa. Kontratua: zerbitzu-errentamendua. Inkorporazio-eguna: 1990eko uztaila.

Estellerriko ORVE

Arduraduna: Isabel Izcue Montejo andrea, arkitektoa. Kontratua: lan-arlokoa. Inkorporazio-eguna: 1986ko ekaina.

Sakana-Nafarroako Iparmendebaldeko ORVE

Arduraduna: Joaquín Ansó Urmeneta jauna, arkitekto teknikoa. Kontratua: zerbitzu-errentamendua. Inkorporazio-eguna: 1989ko apirila.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko azaroaren 27an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Industri isurketak minimizatu eta tratatzeko eta ingurugiro auditoretzetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren kargura aurkeztu diren proiektuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “industri isurketak minimizatu eta tratatzeko eta ingurugiro auditoretzetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren kargura aurkeztu diren proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den Martín Landa Marco Nueva Izquierda alderdiko Foru Par-

lamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Industri isurketak minimizatu eta tratatzeko eta ingurugiro auditoretzetarako dirulaguntzak” izeneko kontusailaren kontabilitate-egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aurkeztutako proiektuen zerrenda (enpresaren izena, proposatzen duen inbertsioa, aurreikusitako helburua, zer hobekuntza ekar lezakeen), Departamentuak egindako ebaluazioa eta emandako edo proposatutako dirulaguntza.

Hona hemen aurkeztuak eta deialdiko betekizunak betetzeagatik onartuak izan diren proiektuen, diruz lagundu daitezkeen zenbatekoen, emandako dirulaguntzen eta aurreikusitako helburuen zerrenda:

ENPRESA	DIRUZ LAGUNDU DAITEKEENA	EHUNEKOA	1997KO ZENBATEKOA	1998KO ZENBATEKOA	Proiektuaren laburpena
Calinsa	31.362.500	15	4.704.375		Hauts-emisioa gutxitzea
Agralco	259.199.068	10	25.919.906		Hondakin-uretarako araztegia hobetzea
Ucar 1	4.244.162	15	636.624		Edukiera bikiotzeko iragazkia ordezte
Ucar 4	50.041.125	10	2.801.000		Hauts-emisioa gutxitzea
Ucar 3	16.674.393	15	2.501.159		Egosketa-labeak hobetzea
Aceros Moldeados de Lacunza	40.000.000	30	12.000.000		Moldeaketa-hondarrak birziklatzea
Volkswagen	32.967.988	50 y 10	3.216.799		Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Fagor Luzuriaga	17.114.120	15	2.567.118		Desmoldeaketa-lerroan hautsa jasotzea
Inabonos Lodosa	39.546.155	15	5.931.923		Hainbat gunetan hautsa xurgatu eta iragaztea
BS Electrodomésticos	19.357.910	50 y 10	1.901.095	3.834.696	Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Vega Mayor	10.900.000	50 y 10	1.040.000	2.170.000	Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Koxka	14.100.000	50 y 10	830.000	740.000	Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Centracero	2.880.000	50	420.000	1.020.000	Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
TRW	65.157.908	50,10,15 y 30	9.421.151	2.002.400	Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Ind. San Andrés	26.423.283	15	3.963.492		Sorturiko zarata murriztea
Saprem	3.435.000	50 y 10	1.027.500		Ingurugiro Kudeaketarako Sistema ezartzea
Norton	6.193.090	50 y 10	467.546		Hondakin-multzoa hobetzea eta ingurugiro- auditoretza
Reciclauto Navarra	18.358.000	50	2.456.500	6.722.500	Erabiltzen ez diren ibilgailuak dekontaminatzea eta birziklatzea
Canteras de Echauri y Tiebas	18.820.007	25	4.705.002		Sorturiko hautsa murriztea
Inquinasa	47.100.278	15	7.065.042		Hondakinak errausteko labea hobetzea
Inabonos Pamplona	4.636.525	15	695.479		Sorturiko hautsa murriztea
Guztira	728.511.512		94.271.712	16.489.596	

Betekizunen bat ez betetzeagatik bazterturiko proiektuak honakoak dira:

ENPRESA	Proiektuaren laburpena
Bertako	Prozesuko itsasgarria aldatzea
CAR Velate	Siloratze-lixibiatuak araztea
Alfalfas Osés	Barne-giroa hobetzea
Ucar 2	Ekorgailu berriak.- 1996ko urria
CSI	Hondakindegia hobetzea
Larrad	Disolbatzailea ordezte
Logística Navarra	Kotxeak argizarizatzeko lerroa aldatzea

Honako proiektuok aztertzekeo gelditu dira, eskatzaileek eman beharreko hainbat argibideren zain:

ENPRESA	Proiektuaren laburpena
CEIN	I.K.ko Sistemak ezartzeari buruzko jardunaldia
INDESO	Industri ingurugiroari buruzko 6 ikastaro 50-100 ordu
FUNVERA	Isurketak araztea eta lurzorua deskontaminatzea
MAGNA	Hauts-eraketa zuzentzea

2.- Aipatu kontusailaren betetze-egoera, behin Ingurugiro Departamentuak emandako edo proposatutako dirulaguntza ebaluatu eta proposatu ondoren.

Aipaturiko kontusailean, beharrezkoak ziren doiketa edo transferentziak egin dira beste batzuekin; hain zuzen, ekitaldiaren amaieran zentuz bete ezin ziren batzuekin. Zehazki, lerro

hauek: 11260-8 lerroa, granjak minimizatu eta tratatzeko dirulaguntzak; horretarako deialdia beranduegi onetsi zen (Europako Batasuneko Batzordearen baliozkotzea ez zuelako lehenago izan) burutu zitezkeen proiektuak aurkezteko (4 proiektu bakarrik aurkeztu dira, eta jaso dituzten dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 11.221.198 pezetakoa da) eta 11330-2 lerroa, Navarra de Medio Ambiente Industrial-entzako kapital-transferentziak, Sozietate horrek ezin izan duelako hondakin bereziak tratatzeko inbertsiorik egin, Plan Kudeatzailea Nafarroako Parlamentuko Lurraldearen Antolamendu, Ingurugiro eta Etxebizitza Batzordeak ez duelako onetsi.

Horrela, ekitaldi honetarako orain arte aitorturiko dirulaguntzen guztizko zenbatekoa 94.271.712 pezetakoa da; kreditu erabilgarria 6.826.117 pezetakoa, eta, 1998rako hitzarturiko kreditua, 16.489.596 pezetakoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Fitero eta Cintruénigotik hurbil ekipo elektrikoak birgaitzeko lantegi bat jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Fitero eta Cintruénigotik hurbil ekipo elektrikoak birgaitzeko lantegi bat jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Fitero eta Cintruénigotik hurbil ekipo elektrikoak birgaitzeko lantegi bat jartzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein informazio du Nafarroako Gobernuak proiektu honi buruz, proiektuaren gauzatze-egoerari buruz eta abian jartzeko aurreikusitako datai buruz? Eman al du Nafarroako Gobernuak urratsik Errioxako Gobernuaren aurrean instalazio horri buruzko txostenak eta aurretiko ikerlanak eskatzeko? Ba al du txostenen bat? Zein txosten eta zein erakundek edo organismok egin ditu?

Ecolrec sozietatearen proiektuari buruz eskura dagoen informazioa “Ekipo elektrikoak birgaitzeko lantegi bat jartzeari buruzko proiektuaren oroitidazki-laburpena” deituriko dokumentuan jasotakoa da. Dokumentu hori sustatzaileak Errioxako Gobernura bidali zuen, eta hortik Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura igorri da, helburua hauxe izanik: Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlanean sustatzaileak kontuan hartu beharko lituzkeen ingurugiro-kontuei buruzko proposamenak biltzea.

Beraz, proiektua ez da hasi, eta hori abian jartzeko datarik aurrekusi izanaren konstantziarik ez dago. Bestalde, jakin ahal izan da Cervera del Río Alhama-ko Udalak azaroaren 5ean eginiko aparteko bilkuran “Ecolrec Enpresa La Rate-ko Industrialdean ez jartzea” erabaki zuela.

Proiektuaren zehaztaperen-falta dela-eta, ez da urratsik eman Errioxako Gobernuaren aurrean. Proiektua oraindik hasiera-fasean dago. Ingurugiro Eraginari buruzko Azterketak izan behar duen edukiarri buruz eginiko iruzkinak bakarrik egin dira.

2.- Zein instalazio erabiltzen ditu proiektu honetako jarduera nagusiak? Zein hondakin kopuru tratatuko dela aurrekusi da? Aipatutako Nafarroako herri bakoitzaren udal dermiotik eta herrigunetik zein distantziara aurkitzen da planta hori kokatzeko aukeratutako aldea?

Proiektuak erabiltzen duen instalazioa zubi-garabia daukan 1500m²ko nabe bat da. Bertan, zona hauek bereiz daitezke:

- prozesu-zonak
- ekipo osagarrien zonak
- zerbitzu-zonak
- bulego-zonak

Instalazioak tratamendurako duen urteko ahalmena 2.000 tona ekipo elektrikokoa da. Horiek urtean 6 tona PCB produzituko dituzte.

Plantatik Fiterora eta Cintruénigora dagoen distantzia hauxe da:

	Fitero	Cintruénigo
- Udal dermioa:	1,75 Km	6 Km
- Herri-gunea:	5 Km	9 Km

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du ingurugiro-eraginari buruzko azterlanaren berri, indarreko legediaren arabera, instalazioak inguru ezberdinei erakar diezazkiekeen eraginen identifikazioa eta balorazioa aurreikusi behar baititu? Nola eragiten diote gure Komunitateari? Ingurugiro-eraginari buruzko azterlanak aurrea hartzeko edo zuzentzeko neurririk ezarri al du lehen aipatu eragin balizkoen aurrean? Produktu eta hondakin horiek garraiatzeak zer eragin du gure Komunitatean? Nafarroako errepideetan zehar garraiatu nahi al dira? Herri-gunerik zeharkatzen al da?

Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlanaren berririk ez dago, oraindik ez baita egin. Aurretiazko kontsultetarako Errioxako Gobernuak eginiko izapideari erantzuteko epea joan den azaroaren 25ean amaitu zen. Izapide hori izanen da Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlana idazteko oinarria.

4.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du jarduketaren bat burutzea Nafarroako herriotako interesak babesteko? Eta aipatu instalazioek gure Komunitateari inolako kalterik (ez ingurugiroari dagozkionak, ez besterik) ekartzen ez diotela ziurtatzeko?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak oharrak egin dizkio Errioxako Gobernuari, Ingurugiro Eraginari buruzko Azterlana egitean kontuan har daitezen. Ohar horiek biltegitratzearen, lurrinak hartzeko sistemen eta prozesua kontrolatzeko sistemen baldintzei buruzkoak dira. Halaber, jarduerak sortarazitako trafikoa eta hurbil dauden Baños de Fitero-ko bainu-etxearen instalazioen funtzionamenduan nahiz, oro har, ur azpiko uretan izan dezakeen eragina aipatzen dute.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñea, 1997ko abenduaren 1a.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

Zangoza aldean, Aragoi eta Onsella ibaietako ibilguak garbitu eta egokitzeko egiten ari diren lanei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Zangoza aldean, Aragoi eta Onsella ibaietako ibilguak garbitu eta egokitzeko egiten ari diren lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zangoza aldean, Aragoi eta Onsella ibaietako ibilguak garbitu eta egokitzeko egiten ari diren lanei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Egin diren lan horietarako baimenik eman al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak?

Departamentu honetan ez da eskaerarik, ez dokumentaziorik aurkeztu aipatu lan horietarako baimena emateko

2. Zein administrazio prozedurari jarraitu dio Ebroko Ur Konfederazioak lan horiek egiteko. Norainoko eskuhartzea izan du Nafarroako Gobernuak prozedura horretan?

Ebroko Ur Konfederazioko langile tekniko batzuek ahoz esan zioten Zangozako alkateari eskusartzeko alderdiak eta burutu beharreko lanak zehaztu zituztela jarduteko modu ezberdinek aztertu eta gero.

3. Egin al da ingurugiro eraginari buruzko azterlanik? Egin al du Nafarroako Gobernuak lan horien nolabaiteko jarraipenik? Zein motatakoa?

Galdera ingurugiro eraginari buruzko azterlanaz ari bada, ez dela egin esan behar dugu.

Ingurugiro Zaintzak jarduketa horiek zaindu eta jarraitzen ditu, eta jarduketak gelditzeraino ere heldu daiteke baldin eta ingurugiro eraginak horrenbestearainokoak badira. Horri buruzko informazioa zabaltzeko, esan beharra dago Aragoi ibaiko jarduketak eskuin aldeko 400 metro inguru eta ezker aldeko 400 metro inguru ukitzen dituela hiri aldean; haietan zuhaiskak bota eta abarrak inausi dira, eta zuhaitz lehorrak ere kendu dira.

Onsella ibaiko jarduketak ibai alde bakoitzeko 250 metro hartzen ditu, txipudiak dauden alderdietan, eta haietan burutu dira inausketa lanak eta zuhaiskak eta bestelako gauzak garbitzeko lanak. Bi jarduketa horiek egoki eta onuragarriak dira teknikarien iritziz.

4. Uste al du Nafarroako Gobernuak lan horiek sortako ingurugiroko kalteak garrantzitsuak izan direla? Baiezkoan nahiz ezezkoan: zergatik?

Lan horiek sorturiko kalteak ez dira garrantzitsuak, izan ere munta gutxiak izan baitira.

5. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat burutzea eskualde hori zaindu eta leheneratzeko? Zein jarduketa?

Aurretik adierazitakoaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ez du uste beharrezkoa denik neurriak hartzea aipaturiko eskualdeak zaindu edo leheneratzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 4an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ur hornidurako lanak direla eta, Irati ibaia Ledea eta Zangoza artean pasatzen den tartean ibilguak duen egoerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ur hornidurako lanak direla eta, Irati ibaia Ledea eta Zangoza artean pasatzen den tartean ibilguak duen egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas

Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ur hornidurako lanak direla eta, Irati ibaia Ledea eta Zangoza artean pasatzen den tartean ibilguak duen egoerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Egin diren lan horietarako baimenik eman al du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak?

Departamentu honek ez du jaso ez eskaerarik, ez dokumentaziorik bigarren aldiko lan horiek burutzeko baimena, halakorik behar izanez gero, eskatzen dutenik.

2. Uste al du Nafarroako Gobernuak Zangozako aldean ur hornidurako proiektua burutzeko lanetan sortu diren ingurugiro kalteak “garrantzitsuak” izan direla? Baiezkoan nahiz ezezkoan: zergatik?

Irati ibaian, Ledea eta Zangoza artean, ur hodi bat sartzeko lanetan sortu diren kalteak munta gutxikoak dira.

Hori guztia ondoko arrazoiengatik: a) Bi aldeetan landare gutxien zeukan ibaiko tartea aukeratu zen. b) Tamaina ertaineko sei zuhaitz bota ziren. c) 300 mm.ko diametroa duen hodia jartzeko indusketa egin behar izan zen harrian, 5 metro sakon. Hori dela eta, euskin bat eraiki behar izan zen ur-emaria behar bezala desbideratzeko. Kamioi eta makinen mugimenduak gutxieneko leku bat behar du. Okupatu zen gehieneko zabalera hogeita hemeretzi metro izan zen eta batez bestekoa hogeita bederatzita metro. Dimentsio horiek onartzeko modukoak dira.

3. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat burutzea eskualde hori zaindu eta leheneratzeko? Zein jarduketa?

Eremua leheneratzeko lanak aurreikusi dira. Horretarako, txosten teknikoa prestatzen ari da, non ukitutako azalera bertako zuhaitzak landatuz leheneratzeko behar diren neurriak ezarriko diren.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 4an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Naturguneak babesteko itunak” izeneko aurrekontu-sailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Naturguneak babesteko itunak” izeneko aurrekontu-sailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Askotariko Taldeko kidea den Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Naturguneak babesteko itunei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Udalek hitzarmenak sinatzeko egin dituzten eskabide guztiak aintzat hartu al dira? (Aurkeztutako eskabideen zerrenda).

Aipatu kontusailaren kargura bi modutako jarduketak egin dira:

A) Naturguneak babesteko hitzarmenak; hona haiei buruzko zenbait datu:

AD. ENTITATEA	JARDUKETA	AURREKONTUA
Urrotz-Beintza Labaien	Leurtzako urtegiak zaindu eta garbitzea (ANR)	804.312
Lizaso	Orgiko erabilera publikoa egokitu eta antolatzea (ANR)	15.600.000
Aralar Elkartea	Mendia egokitu eta antolatzea	13.968.776
Pirinioko Turismo Partzuergoa, Cederna-Garalur, Irunberri, Urraulbeiti eta Romanzado	Irunberriko Potxearen (RN) Arbaingo Potxearen (RN) eta Ugarron Potxearen (EN) turismo erabilera egokitu eta antolatzea	5.490.000
Zaraitzu Ibarreko Batzarra	Irati zaindu eta garbitzea	3.691.232
Nabaskoze	Benasako Potxea (RN) zaindu eta garbitzea	322.456

B) Ibaiak kontserbatzeko hitzarmenak; honako jarduketa hauek egingen dira:

AD. ENT.	JARDUKETA	AURREKONTUA
Tafalla	Cidacos ibaia garbitu eta egokitzea	22.625.860
Eriberri	Berdin	18.100.689
Beire	Berdin	10.130.350
Pitillas	Berdin	13.428.012
Larrion	Urederra ibaia garbitu eta egokitzea	7.707.067

A) atalean ezin izan da onartu Aezkoa Ibarreko Batzar Nagusiak egindako eskaera, Irati mendia 1997ko ekinaldian zaindu, garbitu eta kontrolatzeko lanak diruz laguntzeko, izan ere eskaera hori aurtengo abuztuaren 26an jaso delako, epez kanpo argi eta garbi.

B) atalean ondoko xehetasunak hartu behar dira aintzat:

1) Adierazitako aurrekontua ehuneko 70-90ean diruz lagundu dira, 5 b) helburuko eremua den ala ez den aintzat hartuta, edo Europako Batasunaren laguntzak jaso daitezkeen FEOGA-0-ren bitartez.

2) Ez dira onartu kanpaleku gisa erabiltzea aurreikusi diren erreken ondoko eremuak egokitzeko jarduketarako hitzarmenak egiteko eskaerak; horixe da Izaba eta Otsagiko Udalen kasua.

3) Erreferentziako data, irailaren lehena, eta gero, hitzarmenak aurrekontu-izakinen arabera prestatzen aritu gara.

2. Zein izan dira hautapenerako erabili diren irizpideak, halakorik izan bada, dirulaguntzak emateko garaian, dela hitzarmen bidez dela zainketa gastuen bidez edo egokitzapen lanen bidez?

Naturguneak babesteko hitzarmenei dagokienez, azpimarratu behar da horien bidez toki entitateak beren naturguneak babesteko lanetan eta naturgune horiek hobetzen inplikatu nahi direla. Hori dela eta, ez da beharrezkoa izan inongo hautapena egitea: aurkeztutako eskaerak onartu besterik ez da egin.

Ibaiak kontserbatzeko hitzarmenei dagokienez, lehentasuna eman zaio populazio-guneetan kalte egin dezaketen ibai-arroetan jarduteari. Gainerako jarduketak eskaerak jaso diren hurrenkeran programatu dira.

3. Jasotako eskabide guztiak hartu al dira aintzat? Ezezkoan, zein izan dira ukatutakoak eta zergatik?

Eskatzen dena zati batean emanda dago aurretik adierazitakoaren bitartez. Denbora egokia ez izatea eta aurrekontu-krediturik ez egotea dira beste hitzarmen batzuk egiteko dauden baldintza bakarrak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 4an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo.

Masa Amankomunari esleitutako ordezkatzeko-finkak Pitillasko Udalarari lagatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Masa Amankomunari esleitutako ordezkatzeko-finkak Pitillasko Udalarari lagatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 19ko 77. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak galdera egin du Masa Amankomunari esleitutako ordezkatzeko-finkak Pitillasko Udalarari lagatzeari buruz. Hona

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Egoki diren jabetza-tituluak izapidatzen ari dira.

2.- Pitillasko Masa Amankomunetatik legarra ateratzeko ezein baimen-eskakizunen berri ez dute Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritzako Egituren Zerbitzuan.

3.- Inskripzioa Pitillasko Udaleko komunalaren izaerarekin burutuko da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 5ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko apirilean egindako bilerak

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

3, 21 eta 28an:

OSOKO BILKURA

2an:

– Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordeak Nafarroako Lanbide Elkargoei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak Nafarroako Nekazaritza Ganbarari buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako autonomia fiskala eta finantzarioa aintzat har dezan.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa garatzeari ekin diezaion.

22an:

– Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordeak Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko mar txoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– a) Ondoko Foru Lege proiektuaren bideraketa zuzena eta irakurketa bakarrean izango ote den erabakitzea, hala bada: Foru Lege proiektua, 125.000.000 pezetako kreditu berezia ematea onesten duena, Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko.

b) Nafarroako TVEren zentroaren lurraldeko programazioa zabaltzeko 125.000.000 pezetako

kreditu berezia ematea onesten duen Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena, Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errasti Esnal Foru Parlamentarietiek aurkeztua, aintzat hartzea, hala bada.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Senatuaren erabarritzea aztertzen ari den Ponentziari adierazten zaio Nafarroako Parlamentuaren irizpidea aldaketa honen aurrean.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

1ean:

– Romeo Lizarraga jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Parlamentuak Etxegarateko bikoizketa dela-eta, zenbait neurri erabaki ditu.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernu premiatzen da Nafarroako RTVEko Kontseilu Aholku-emaileari buruz zenbait neurri har ditzan.

3an:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Cintruénigoko sahiesbidearen gainean zubi bat eraikitzearen berri eman dezan.

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren agerraldia, Ziordian aspiko pasabide bat eraikitzearen eta Iruña-Jaca-Huesca ardatzaren berri eman dezan.

28, 29 eta 30ean:

– Errepideko hiri barruko garraio publikoa arautzen duen Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Iruñerriko lineako bidaiari-garraioari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

FORU ARAUBIDE BATZORDEA

1ean:

– Nafarroako Lehendakariaren agerraldia, Bozerramaileen Batzarrak hala eskatuta, Senatua-ren erreformari buruz duen iritzia azal dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

7an:

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da Derrigorrezko Irakaskuntzaren ondoko Eskola Mapa bidal dezan.

7an:

– Lan bilera. Bertan, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak Jorge Oteiza Fundazioaren berri emango du.

24an:

– Lan bilera. Bertan, Tuterako Fernando Remacha Musika Eskolako Gurasoen Elkarteko ordezkariak eskolak dituen beharren berri emango dute.

30ean:

– Lan bilera. Bertan, Sakanako Prestakuntza Batzordeko ordezkariak batek erremu horretako hezkuntza eskaintzaren berri emango du.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

7an:

– Lan bilera. Bertan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariak Iruñean apirilaren 23, 24 eta 25ean egitekoa den Kolonbian Bakea Lortzeko Nazioarteko Topagunearen berri emango du, agerraldian. Kontseilari jauna horien Antolaketa Batzordeko burua da.

30ean:

– Gizarte Ongizateko Kontseilariaren agerraldia, Bozerramaileen Batzarrak hala eskaturik, ahalmen gutxiko pertsonen eskaintako arretaren berri eman dezan.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

8an:

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etxebizitza bioklimatikoak sustatzeari buruzko plan bat bidal dezan.

– Sánchez Turrillas jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Dekretu baten bidez nekazari-jardueren eragin kutsatzaileak arau ditzan.

24an:

– Landa Marco jaunak (Askotarikoa) aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da olioak erregai bezala erabiltzearekin zerikusia duten neurriak har ditzan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEA

21ean:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, Bozerramaileen Batzarrak hala eskaturik, IPARLATEko kapital-zabalkuntzaren berri eman dezan.

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, Bozerramaileen Batzarrak hala eskaturik, joan den martxoaren 2ko Sektoreko Batzarrean aztertutako gaien berri eman dezan.

24an:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea eta «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek eta Errazti Esnal andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Mozio horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da EHNE nekazari sindikatuari dirulaguntza bat emateko behar diren fondoak bideratu ditzan.

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEA

23an:

– Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren agerraldia, Bozerramaileen Batzarrak hala eskaturik, Tuteran Foruzaingoaren koartel bat jartzeko proiektuaren berri eman dezan.

1998ko apirilean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Basa Fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektuari aurkezturiko emendakinei Osoko Bilkuran eusteko.

– Nafarroako errepideetako seinaleetan ageri diren kalte, inskripzio eta narriadurei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Kantabriako Probintzia Diputazioko Lehen-dakariaren idazkia, hauxe jaso dutela jakinarazteko: «Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren edozein progresibitate-murrizketaren aurkako iritzia azaltzeko Nafarroako Parlamentuak hartu duen erabakia».

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa aldatzeko ekimena onesteko Erabakia.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen emendakina hurrengoari: Mozioa, horren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa garatzeari ekin diezaion, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Nafarroako Gobernuak hainbat kontseilariren foru aginduen eta hainbat departamentutako zuzendari nagusien ebazpenen bidez gauzatu diren aurrekontu-aldaketan legezketasunari buruzko txostena. 1997ko azaroan bidali ziren horiek Parlamentura.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, hainbat departamentutako zuzendari nagusien ebazpenen bidez gauzatu diren aurrekontu-aldaketan legezketasunari buruzko txostena. 1997ko abenduan bidali ziren horiek Parlamentura.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Nafarroako Gobernuak hainbat kontseilariren foru aginduen eta hainbat departamentutako zuzendari nagusien ebazpenen bidez gauzatu diren aurrekontu-aldaketan legezketasunari buruzko txostena. 1998ko urtarrilean bidali ziren horiek Parlamentura.

– Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Nafarroako Gobernuak hainbat kontseilariren

foru aginduen eta hainbat departamentutako zuzendari nagusien ebazpenen bidez gauzatu diren aurrekontu-aldaketan legezketasunari buruzko txostena. 1998ko otsailean bidali ziren horiek Parlamentura.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, Imarkoain inguruko erreken gehienezko emariak balioesteko azterketa hidrologiko eta hidraulikoari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, gizonezkoen eta emakumezkoen aukeraberdintasunaren alde aritzeko Nafarroako planaren proiektua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egindako galdera baten erantzuna, Unibertsitate prestakuntzaren guztizko gastuari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, Ugatza Berreskuratzeko Planarekin konprometitu dauden Pirinio aldeko administrazioen bilerei buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egindako galdera baten erantzuna, N-113 errepidearen gaineko gurutzeguneetarako konponbide alternatiboei buruzko galdera, horietako bat Tutera-Cintruénigo errepidearen NA-160 eskualde errepidean.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, espezie babestuak ikertzeko lanak baimentzeko Ingurugiro Kontseilaritzak izenpetu dituen espedienteei buruzkoa.

– Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak idazkia. Artaxonako Alkateak egin gomita jakinarazteko.

– Mozioa. Horren bidez, Senatuaren eraberritzea aztertzen ari den Ponentziari adierazten zaio zein den Nafarroako Parlamentuaren irizpidea aldaketa honen aurrean, «Nafarroako Demokratikoen Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Mozioa. Horren bidez, Foru Komunitateko Gobernua premiatzen da LORAFNAko 29. artikulua aldatzeko erabakia bete dezan, «Nafarroako

Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– Hondakinei buruzko zuzentarau berriari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina.

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

2an:

– Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du sendagaiei buruz hartutako erabakiak bete ditzan, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua.

–EILAS-en eta beste batzuen idazkia. Hauxe eskatu dute: espetxeetako ikasketen gaia erabiltzeko bilera.

–Axel Baumgart jaunaren idazkia. Harekin batera, Lekunberriko bake-epailearen eta Lekunberri irratiko kazetari baten aurka aurkeztu duen salaketa, Beteluko ikastetxe publikoko tratu txarren inguruan.

– Ezkabarteko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea gaitzesteko, Arazuriko instalazioa dela-eta.

– Ezkabarteko Udalaren idazkia. Harekin batera, Osoko Bilkuraren erabakia, Iruñerriko bidaiari-garraio publikoari buruzko Foru Lege proiektuaren gaineko mozioa onesteko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Basoei buruzko Plana (1998-2007) onesteko erabakia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzeari buruz duen iritzia.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak eskatutako informazioa, "Navarra de Medio Ambiente Industrial, SA"k "Potasas de Subiza, SA"ri Zolinako putzuko lurrak erosteko kontratuari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nekazaritza Kontseilariarekin lan-bilera egiteko eskaria, Departamentuak animalien osasunaren inguruan burutu dituen jarduketek berri eman dezan.

–Rikardo Ederra Irurtzun jaunaren idazkia. Hauxe eskatu du: Hezkuntza Batzordera agertzea, Ikastetxeko Hizkuntza Plana deritzanaren berri emateko.

3an:

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren emendakina. Etxebizitza biklimatikoei buruzko mozioa.

–Juan Andrés Platero Alda eta Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunaren idazkia. Hauxe eskatu dute: Hezkuntza Kontseilariaren agerraldia, Tuterako musika eskolak duen arazoaren berri eman dezan.

